

2022ko **Batzar** **Nagusia**

Gai-zerrendako puntua: 10

Som Energiaren parte-hartzearen diagnostiko-prozesuaren itzulketa

AURKIBIDEA

Testuingurua	2
Dokumentazioa/txostena	2
Hurrengo urratsak	2

Testuingurua

Gaur egun, kontsumo-kooperatibek zerbitzuen irisgarritasuna bermatzen dute eta, gainera, herritarrek uste dute aldaketa eta eraldaketa errealerako tresna direla. Kooperatiba hauek bazkide ugari dituztenez, erronka bat da horien gobernantza demokratikoa eta parte-hartzailea bermatzea.

Erronka hori are nabarmenagoa da Som Energian; izan ere, nahiz eta sektore energetikoan gertatzen denak denoi eragiten digun gure eguneroko bizitzan, kooperatibak gardentasun gutxiko sektore konplexu batean operatzen du. Hortaz, bazkide askok ez dute sentitzen iritzia emateko gaitasuna dutenik.

Kooperatibaren parte-hartzearen kalitatea eta aniztasuna hobetzeko, beharrezkoa dena energia-trantsizio eraldatzailea (inklusiboa) bultzatzeko, Artezkaritza Kontseiluak parte-hartzearen diagnostiko bat egiteko eskatu zuen.

Enkargu honen xedea hauxe izan da: batetik, Som Energiaren sozietate-oinarriaren parte-hartzearen errealitatea ezagutzea, diagnostiko kuantitatiboa eta kualitatiboa eginez eta, bestetik, prozesu bat abian jartzea. Horretan, talde-dinamikak banakako zein taldeko ikaskuntza eta aberasketa eragingo ditu, parte-hartzearen hobekuntza eta aniztasuna beren-beregi sustatzen dituzten protokolo berriak sortzeko gai izateko.

Altekio kooperatibak eraldaketa ekosozialeko prozesuak errazten ditu eta horrek burutu du diagnostiko-prozesua. Hala, bilakaera azaltzen digute hurrengo txostenean, eranskinak dituenak.

Dokumentazioa/txostena

1. [Parte hartzeko protokoloen diagnostikoa eta diseinua](#)
2. Eranskinak

Hurrengo urratsak

Jasotako informaziotik eta proposamenetatik abiatuta, kooperatibak metodologia eta protokolo berriak ezartzeko eta aplikatzeko lan egingo du, aukera emango digutenak parte-hartzea handitzeko, errazteko eta hobetzeko, aniztasun handiagoa sustatzen duten bitartean.

Ildo horretatik, ekainaren amaieran, Artezkaritza Kontseilua eta talde teknikoa bilduko dira, ondorioen eta proposamen desberdinen baterako irakurketa egiteko eta epe laburrera eta ertainera buru daitezkeen ekintzak aztertzeko. Halaber, aztertuko dute zeintzuk diren, eragin positiboa izango duten arren, zeharkako esplorazio-lana eskatuko dutenak, kooperatibaren eremu desberdinetako inplikazioak kontuan hartuz.

Azkenik, beharrezkoa izatekotan, hurrengo Batzar Nagusian bozkatuko lirateke Barne-araubidearen Arautegiaren aldaketak, Som Energiaren parte-hartzea hobetzeko eta aberasteko.